

MARRAZKI ETA ARGAZKI LEHIAKETA 2026

Lehiaketaren oinarriak:



LEHIAKETAREN GAIA:

Gure inguruetako natura.

KATEGORIAK:

- 1.KATEGORIA: 10 urte arte
- 2.KATEGORIA: 11-15 urte bitartean
- 3.KATEGORIA: 16 urte baino gehiago

MODALITATEAK:

- MARRAZKIA (edozein teknika)
- ARGAZKI DIGITALA

AURKEZTEKO AZKEN EGUNA:

2026ko azaroaren 30a

Postaz bidaltzen badira, zigiluak azaroaren 30ean izango du epe muga.

LANAK AURKEZTEKO ARAUAK:

Aurkeztutako lanak **originalak** izan behar dira, gehienez **urte beteko antzinakotasuna** dutenak eta beste lehiaketa batean saritu gabeak.

Pertsona bakoitzak **marrazki bakarra** eta **argazki bakarra** aurkeztu ahal izango ditu (pertsona berak marrazkia + argazkia aurkeztu ditzake).

Lanek **egile bat baino gehiago** badute, **ez dira kontuan hartuko** lehiaketarako.

MARRAZKIA:

Aurkeztutako marrazkiak **edozein teknikarekin** egin ahal dira: argizaria, akuarela, koloretako arkatzak, ikatza eta abar, marrazki digitala barne.

Tamaina DIN A2 batekoa edo txikiagoa izan beharko da.

ARGAZKIA:

Aurkeztutako argazkiak **formatu digitalean** egon beharko dira: JPG, JPEG, PNG, TIFF.

LANEN AURKEZPENA

Aurkezten diren lanetan (argazkiak/marrazkiak) behar bezala identifikatu beharko da parte-hartzailea.

- Izen-abizenak
- Ikastetxea, elkartea, kolektiboa... (izatekotan)
- Adina eta kategoria
- Telefonoa eta helbide elektronikoa (kontakturako)

Ez dira kontuan hartuko ezarritako arauak betetzen ez dituzten lanak.

LANEN BIDALKETA

MARRAZKIA:

Marrazkiak ondorengo lekuetan aurkeztu daitezke, **zuzenean eramanda** edo **postaz bidaliz**:

- EKOETXEA MEATZALDEA – Campo Diego auzoa, 48500 Abanto-Zierbena (Gallarta).
- EKOETXEA URDAIBAI- San Bartolome auzoa, 34, 48350 Busturia.
- EKOETXEA TXINGUDI - Plaiaundi Parke ekologikoa, 20304 Irun.
- EKOETXEA AZPEITIA - Loiola Auzoa Gunea, 1, 20730 Azpeitia.
- EKOETXEA AÑANA-SOBRÓN - La Presa kale, 1, 01423 Sobrón.

Lan bat baino gehiago batera bidaltzen bada (eskola-talde batetik, adibidez), behar bezala identifikatu lan bakoitza, nahasterik egon ez dadin.

Marrazkiak **ON-LINE** aurkeztu daitezke ere bai. Horretarako, ESKANEATU edo ARGAZKI BAT ATERA, ondoren irudia aztertu@euskadi.eus helbidera bidaliz. Ateratako irudia perfektua ez bada, ez larritu, marrazki originala eskatuko dugu beharrezkoa bada.

ARGAZKIA:

Argazkiak **FORMATU DIGITALEAN** aurkeztuko dira, posta elektronikoz aztertu@euskadi.eus helbidera, fitxategia erantsita edo deskargarako estekarekin.

SARIAK:

Aurkeztutako lan guztiak Eusko Jaurlaritzako eta AZTERTU koordinatzen duen taldeko kideek osatutako epaimahaiak balioetsiko ditu. **Modalitateetako kategoria guztietako irabazleei sari bana emango zaie**, baita saridunen ikastetxe, elkarte edo erakundeei ere (izatekotan). Kategoria bakoitzerako *accèsit* bat egoteko aukera egongo da, Aztertuko taldeak ontzat hartzen badu.

Kategoria ezberdinentzako sariak ez dira aldez aurretik ezagutzen. Ez dira metalikoan izango, eta jasangarritasunaren aldeko hezkuntzarekin eta naturaren gozamen jasangarriarekin izango dute zerikusia: joko hezigarriak eta dibulgatzaileak, eskulanak, ipuinak, liburuak, mendirako eta kirol materiala... Sarituak, edo haren ordezkari den norbaitek, sari-banaketara joan beharko du saria jasotzera. Bestela, antolatzaileek sariak ez emateko eskubidea izango dute.

**Saritutako pertsonak ezin izango dira bi urtez jarraian irabazle izan, pertsonen aniztasuna sustatzeko.*

SARITUTAKO LANAK ARGITARATZEA:

Saritutako lanak **AZTERTU** programaren **web orrian argitaratuko dira**, saritutako lanen bilduma edo galerian.

OBREN ITZULTZEA

Nahi duenak bere obra berreskuratu dezake. Horretarako aztertu@euskadi.eus helbidearen bitartez kontaktuan jarri beharko da urte bateko epean.

AURKEZTUTAKO LANAK ERABILTZEKO BAIMENA:

Lehiaketara aurkeztutako lanak Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioaren esku geratuko dira, eta lan horien kopiak egiteko eta zabaltzeko baimena izango du, baita egoki deritzon komunikazio publikoko sistemaren bidez eta egoki deritzon helburuarekin lanak ezagutarazteko baimena ere. Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioak eskuratzen dituen baimen horien iraupena 6 urtekoa izango da eta nonahi gauzatu ahal izango ditu. Hala, esaterako, AZTERTU programaren aurtengo edizioan nahiz hurrengoetan sor litekeen edozein materialetan (apaingarri edo osagarri) erabili ahalko ditu lanak, baita ezagutzera eman AZTERTU programaren web gunean ere. Bestalde, parte-hartzaileen irudia modu berdinean erabili ahal izango du Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioak. Lehiaketara lanak aurkeztu dituztenek, ordea, ez dute EAEko Administrazioak egin ditzakeen erabilera horiengatik guztiengatik diru-saririk jasotzeko eskubiderik izango.

LEGEZKO OHARRA:

Abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoak, Datu Pertsonaen Babesa eta eskubide digitalen bermea, ezarritakoari jarraiki, honako hau jakinarazi nahi dizugu: AZTERTU lehiaketara aurkezten duzun lana saridun baldin bada, zure datu pertsonalak fitxategi automatizatu batean gordeko dira.

Fitxategi horretan gordetako datuak helburu hauetarako baino ez dira erabiliko:

- Zure lanak saria jasoko duela jakinarazteko.*
- Sariak banatzeko ekitaldira zu gonbidatu ahal izateko.*
- Dagokizun saria eman ahal izateko.*
- Zure lana AZTERTU aldizkarian lan sarituen bilduman argitaratzen dugunean, nork eginga den adierazi ahal izateko; beti ere zuk datu horiek azaltzearen aurkako adierazpenik egiten ez baduzu.*

Fitxategiaren arduraduna Eusko Jaurlaritzako Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumen Saileko Natura Ingurunearen eta Ingurumen Plangintzaren zuzendaria da. Datuak eskuratzeko, zuzentzeko, deuseztatzeko eta fitxategian agertzearen aurka egiteko eskubidea gauzatu nahi izanez gero, Sail horretako Zerbitzu Zuzendaritzara jo dezakezu: Donostia-San Sebastián 1, 2. solairua, Vitoria-Gasteiz 01010.

747 42 99 33

aztertu@euskadi.eus



@aztertuprograma

www.euskadi.eus/aztertu